

Literatura ▸ LIBURUAK

Zubiak eta hirukiak

MIKEL AYERBE

Errealitatea eta fikzioa nahasten direla irakur daiteke Lutxo Egiaren *Zubigilea* nobela kaleratu berriko kontrazalean. «Eleberri politiko» honetan egileak zubiaren anti-irudia jorratu nahi izan duela ere irakurri ahal izan genuen liburua-aren aurkezpenaren inguruko artikuluetan. Deustuko Zorrotzaurren egitekoak diren operazio makrourbanistikoen gainean eraikitako fikzioa da liburu honetako zubi baten ertza; zubiaren beste muturrean, 1964an Bartzelonako Europako Futbol Txapelketan gironen den sabotaje saioa dago. Bi plano narratiboen artean, Bilboko bulego bateko arkitektoa den narratzaileak lehenengo pertsonan eraikitako du kontakizuna, ordena jakinik gabe eta modu ez-linealean, bere nahiera denboran atzera-aurrera eginez, zubiaren ertz bate-tik bestera igaroz etengabe.

Liburu honetako narratzailea horretara mugatzen da, istorioetako gertaeren lekuko eta testigantza biltzailea da soilik. Nobelako bi istorioen arteko lotura Andres Peruarena pertsonaiaren eskutik eskaintzen baita. Narratzailea Pe-

ruarenaren menpekota da, hitza-zen zentzu hertsianean (zerbaite-gatik alderatzen du bere nagusia Melvilleren Ahab kapitainarekin). Errealitatean jadanik Manhattan deitzen dioten Zorrotzaurreko auzuneko aurreproiektua, berriz, Enzo Padovano zubigile *star*-ari esleitu diote fikzioan, eta lan horretako alderdi guztiak koordinatzeko arduratzailea erabakitzen du Peruarenak, tartean, proiektuan eskua sartzen duten Carme Ferrusola eta Nekane Zuluaga pertsonaien arteko zubilana eginez. Baina iraganeko kontakizunetan, Andres Peruarena gazte denboretako *Andrei* bihurtzen da, eta *Dimitri* eta *Sasa* pertsonaiekin batera, 1964an Bartzelonako sabotaje saioaren gorabeherak orainean duten eragina ezinbestekoa bilakatuko da nobelaren garapenean. Zubien eta bi istorioen gurutzaketaz gain, ordea, bestelako erpinak ere kamusten dira nobelaren zehar, eta horren adibide da triangeluei edo hiruki-egiten zaien aipamena: narratzailearen katuak Isoszele du izena; hiruko sabotaje taldea osatzen zuten *Andrei*-k, *Dimitri*-k eta *Sasa*-k; eta Andres Peruarenari obsesio bihurtuko zaio Carme eta Nekaneekin



■ 'Zubigilea'

Egilea: Lutxo Egia.
Argitaletxea: Susa. **Urtea:** 2007.

(Blonda eta Beltza) osatu nahi duen sexu-triangelua.

Fikzioa fikzio, horrez gain nobelari zubi edo hiri bezalako kontzeptuei buruz gogoeta egiten da. Karmelo Landak egunkari honetako artikulua batean ezin hobeki bildu

zuenez, aurretik Urtzi Urrutietxe-ak edo Paddy Rekaldek bakoitzak bere estiloan egin bezala, Bilbo jasaten ari den *Hirugarren metamorfosis*a nobelara eramandu orain Egiak. «Zubi arteko hiri zahar eta epel hau / erruki barik bortxatu du / jauntxo engominatuen bulego-etan (...) San Agustin zubitik Deustokora erraz ikusten da / hiri top-model bat bihurtu nahi dutela» idatzi zuen Rekaldek *Bilbo dub kronikak* poema liburuan, eta «Putakumeak barra-kode berriko arkitectura saldu nahi zigun garesti, artearen klonazioaren aldeko gara aspalditik» irakur daiteke *Zubigilea*-n. Azkenaldian Bilbon *Periferiak* izeneko jardunaldi eta ekin-tzetan ere sarritan salatu izan den kontua, bestalde. Auzo elkarleen edo bestelako hainbat erakundere-n salaketak ahaztu gabe.

Zubigilea Joseba Jaka V. Literatur Beka sariaren emaitza da. Desberdina, berria eta erritmo biziko proiektua zela argudiatu zuen orduan epaimahaia, baina nago, proiektua nobela bihurtzerakoan, erritmo bizi hori pausatu egin dela sarritan (bereziki sabotaje saioaren eta handik eratorritako pasarteetan). Kontuak kontu, ezin uka Lutxo Egiaren hirugarren eleberri hau beste ekarpen bat dela amaitzeaz dagoen Durangoko Zubi honetarako.

>> mayerbe@berria.info



■ 'Beterriko Liburua', 36. zenb.

Argitaratzailea: Larramendi Kultur Bazkuna. **Data:** 2007ko azaroa.

Asel Luzarraga eta Katixa Agirre idazleei egindako elkarrizketa baina eskaintzen du *Beterriko Liburua*-ren azken zenbakiak. Horretaz gain, Inaki Mendizabalek idatzi du *Editorearen begia* atalean, Har-kaitz Zubirik *Hitz koloredumak* izenekoan; Uxue Alberdiren *Idazlearen proposamena*; eta Amasa-Villabonako amodiozko gutunen lehiaketako lan saritua ere irakur daiteke, Alex Padillak idatzia.



■ 'Gizarte-ezagutzaren garapena nerabezarora arte'

Egileak: Asko. **Koordinatzailea:** Luixa Reizabal. **Argitaratzailea:** UEU. **Urtea:** 2007.

Jaio orduko, gizakia oso gizarte-sistema konplexuan murgiltzen da. Irauteko, ezinbestekoa du sistema horren ezaguera garatzea. Liburu honen xede nagusia gizarte sistema osatzen duten hainbat gai-ri buruzko ezagueraren garapena deskribatzea eta horren inguruko hausnarketa bultzatzea da.



■ 'Elektrokardiografia klinikoa'

Egileak: Felix Zubia eta Karlos Ibaguren. **Argitaratzailea:** Elhuyar. **Urtea:** 2007.

Liburu honetan, elektrokardiograma irakurtzeko modua jasotzeaz gain, elektrokardiogramaren inguruan sakontzeko beharrezkoak diren bestelako gaiak ere jorratzen dira. Osasun arloko unibertsitateko lantzat har badaiteke ere, kontsulta lana dela ere esan daiteke. OEEren Agote saria irabazi zuten egileek 2003an, lan hau idatzeko laguntza gisa.

■ Haur eta gazte literatura

IÑAKI AGIRREZABAL >> iagirrezabal@berria.info

Aspaldikoa, gaur kontatua

Gauari eta egunaren sorrerari buruzko kondaira du kontagai *Jaxinto eta giltza erraldoia* liburuak. Mundu osoak eguzkia eta ilargia ezagut zitzan mundua birak jarri zuen Aralarko artzain Jaxinto du protagonista. Baina kondaira ez da aspaldiko garaie-tan gertatzen, gaur eguneko bai-zik. Hala erakusten digute, behin-tzat, marrazkiek: egungo ohiturak (hondartzara joatea), paisaiak (hiri modernoak) eta gauzak (elek-trizitate zutoinak) ageri baitira. Horrek irakurlea despistatzen du pixka bat: batetik, zaila delako sinestea gaur egun arte ez ditugu-la eguna eta gaua ezagutu; baina batez ere, testuaren eta marraz-kiaren artean dagoen desorekaga-tik.

Testua ez dago inongo garaitan kokatua; aldiz, marrazkiak bai. Hala ere, marrazki txukunak dira liburuak, handiak, eta sorpresarik ematen ez badute ere, kontakizunaren hariari egoki jarraitzen diote. Esaterako, ilargiaren argi urdin-itxiala eta eguzkiaren argi hori-beroa ongi irudikatuturik daude.



■ 'Jaxinto eta giltza erraldoia'
Egilea: Miriam Mendoza. **Ilustrazioak:** Maite Gaztelumendi. **Argitaletxea:** Gero. **Bilduma:** Alboka.



■ 'Nire ahizpa aluita'
Egilea: Antton Kazabon. **Ilustratzailea:** Leire Iparragirre. **Argitaratzailea:** Elkar. **Bilduma:** Kuku saila.



■ 'Komunean galtzen naiz'
Egilea: Leire Bilbao. **Ilustratzailea:** Jokin Mixelena. **Argitaletxea:** Elkar.

Haserregi orain, gozoegi gero

Harreman estu eta gatazkatsua izaten dira maiz anai-arreben artean. Izenburutik beretik hasita, liburuak zabaltzerako badakigu bi ahizparen arteko ika-mikak kontatuko dizkigula *Nire ahizpa aluita*-k. Ahizpa nagusia da protagonista, eta berak lehen aldian kontatzen du zenbat kosta zaion ahizpa gazte-agoaren ahizpa zaharrena izatea. Gurasoei haserre dago, haiek ahizpa txikia zaintzeko eskatzen diotelako. Eta haserre hori ahizpa txikiarekin deskargatzen du. Bi ahizpen arteko harreman gatazka-tsu horren berri ematen duten hiru-palau istorio ageri dira liburu-an. Harremanean aldaketa gertatzen den arren, ez dago garape-nik. Izan ere, amaieran, urteetan aurrera jauzi egin eta harremana nola aldatu den jakingo du irakur-leak, baina ez horretarako bidean zer gertatu den. Beharbada urteak igarotzeak berak dakar aldaketa? Bukaera hori gozoegia ere bada, or-dura arteko tonuarekin konpara-tuz gero. Hori bai, marrazkiak oso ederrak dira, indartsuak, bi ahiz-pen arteko kontrastea oso ongi iru-dikatzen dutenak.

Etorkizunari so, haurtzarotik

Esan ohi da uda batean, hots, oporretan, urte osoan baino gehiago hazten direla haurrak. Liburu honetako protagonista Kattalini, behintzat, hala gertatzen zaio. Urteroko legez, uda pasatzera aitona-ren etxera, kostaldera, joango dira Kattalin eta bere familia. Aipatu oporretan Kattaline ez dio utziko «etxeko txikiena» izateari, baina jada hartu dio gustua baka-rrik egoteari. Denbora arin igarotzen zaio komunean itxita; bai is-piluaren aurrean bere buruari be-gira, bai bainuontzian sartuta be-re ametsetan galdurik. Kattali-nen ahizpa nagusi Maitane ere asko haziko da denbora gutxian (titiak borobilduko zaizkio, lagu-nekin irteten hasiko da...), eta hu-ra izango du Kattalinekin aurreran-tzean erreferente. Hala ere, orain-dik aitona-ren erreferentzia oso garrantzitsua da. Izan ere, orain-dik haurra da, eta aitona-rekin, os-tera, mundu fantastikora egiten du jauzi behin eta berriz. Marraz-kiek, tonu urdinekoak ia denak, ederkir laguntzen diote itsasoaren inguruan giroturiko sorpresaz be-teriko istorio politari.